

**2019ko UZTAILAK 24ko ESLEIPENAK!**

Uztailaren 15ean argitaratu behar zen esleipenetako deialdia egun bat atzeratu da. Arazo informatiko bat aitzakiatzat erabili dute, baina ezin dezakegu onartu berriz horrelakorik gertatzea.

Haurreskoletako lanpostuen zerrendari dagokionean, enpresak berriz ere haurreskola bakoitzean nahi duena egin du, irizpide batzuk dituela esaten du baina ondoren, praktikara joatean ez ditu irizpide horiek erabiltzen edota komeni zaion bezala erabiltzen ditu. Berriz ere **subjektibotasunaren** menpe gelditzen dira haurreskola guztiak. Hau, urtero, salatu izan dugu baina ez digute erantzun zintzorik ematen. Honetaz gain, ez dugu ulertzen, nola 2016an eta 2019an lanpostuen zerredan ez den langile bat gehiago ere kontratatu, haurreskola eta gela berriak ireki diren arren, enpresak ez ditu lanpostu gehiago sortu eta lanpostuak alde batetik bestera erabiltzen ditu momentuan sortzen zaizkion beharrak asetzeko. Honekin amaitu beharra dago, ezin gaituzte hezitzaileoi txontxongiloak izango bagina bezala erabili.

Honetaz gain, **Esleipen** Deialdian jartzen duenaren arabera aurten, **uztailaren 24ean** txanda bakarrean esleituko dira eskainiko diren plaza guztiak eta ez dira desplazamenduak uztailean egingo. **Iraileko egoeraren arabera desplazamenduak egingo direla esan zigun enpresak** baina ez dakigu ez noiz ezta nola ere. Berriz ere, **inprobisazioa** erabiliko dute, irailean Haurreskolak hankaz gora hutziz. **Hau onartezina da!!** Familei kalitatezko hezkuntza eskaintzeko izugarritzko lana egiten dugu hezitzaileok baina enpresak ez digu inongo egonkortasunik ematen. STEILASetik egoera hau salatzen dugu, hutzikeria galanta baita!!

[www.steilas.eus](http://www.steilas.eus)

Esleipenei dagokienean, ondorengo da aurrera eramango den egutegia eta azpian dituzue eredu bakoitzaren azalpenak:

NOIZ	ZER
Uztailak16	Deialdia argitaratu.
Uztailak17	<b>Ukoak eta borondatezko eskaerak</b> aurkezteko eguna (I, II, III eta IV ereduak aurkeztu (14:00ak baino lehen bidali edo Partzuergoko egoitzan aurkeztu)
Uztailak 18	Hautagaien <b>behin behineko zerrenda</b> argitaratu.
Uztailak 19	Behin behineko hauegain zerrendari <b>erreklamazioa</b> (V eredu, <b>derrigorrez emailez</b> egin behar da)
Uztailak 23	Lanpostuen eta hautagaien <b>behin-betiko zerrenda</b> argitaratu.
Uzatilak 24	<b>Esleipenak 12:00etan</b> txanda bakarrean.

**I eredu:** Borondatez suprimitua izateko eskaera. Zure haurreskolan lankideren baten lanpostua suprimitzekotan, norberak borandetez aukera du berea suprimitzeko eta esleipenetan beste lanpostu berri bat lortzen saiatzeko. Hautagai bat baino gehiago balego lan hitzarmeneko 13. artikulua aplikatuko da.

**II eredu.** LEP artekoak eta ordezkapenak betetzen ari direnak beraien kontratuei uko egiteko eskaera. **Lan kontrata galtzen da eta esleipeneko bigarren txandan parte hartu ahalko duzu beste kontratu bat hartzeko asmoz. Kontuz! Kontrata lortu ezean ez duzu langabezia kobratzeko aukerarik izango.**

**III eredua:** Behin behineko baja egoeran egoteko eskaera. Esleipenetara deitua ez izateko eta 2019-2020 ikasturte osoan deiak ez jasotzeko aukera, lanpostuen zerrendan behin-behineko bajaran agertuko zara. Kontuz! Mahai Negoziatzailean adostu zen 22a izango zela erabiltzeko azken eguna baina deialdian ez dago inon zehaztuta.

**IV eredua:** Behin behineko bajaran egonik lanerako prest jartzeko eskaera. Kontuz! Mahai Negoziatzailean adostu zen 22a izango zela erabiltzeko azken eguna , baina deialdian ez dago inon zehaztuta.

**V eredua:** erreklamazio orria. Derrigorez emailaz egin behar da edota Eibarreko egoitzan aurkeztu. FAXez ez dira onartuko!

Ereduak, faxez (943120737 eta 943121065) edo korreo eltronikoz bidali behar dira Haurreskoletara:

[pertsonalzerbitzua.araba@haurreskolak.eus](mailto:pertsonalzerbitzua.araba@haurreskolak.eus)

[pertsonalzerbitzua.bizkaia@haurreskolak.eus](mailto:pertsonalzerbitzua.bizkaia@haurreskolak.eus)

[pertsonalzerbitzua.gipuzkoa@haurreskolak.eus](mailto:pertsonalzerbitzua.gipuzkoa@haurreskolak.eus)

Espero dugu informazioa argia izatea eta edozein zalantza izan ezker jarri harreamanetan gurekin. Lanpostu zerrenda duin eta garden bat izateko borrokan jarraituko dugu eta iraleko egoeraren aurrean gure egonezina agertu nahi dugu. Ez dugu inprobisaziorik onartuko Haurreskolak Partzuergoaren aldetik!! Gogor jarraituko dugu egoera hauek guztiak salatzen!!

